


Ahots matxinatua



Gotzon Hermosilla

Paddy Rekalderenena fenomeno bitxi eta interesgarria da euskal literaturaren panoraman. Bi ipuin bilduma, poesia liburu bat eta aurreko kaleratu duen *Rebel Mayo Colorao* eleberriarekin ahots berezi eta espezializatua eraikitzea lortu du. Are gehiago: nortasun handiko pertsonaia sortzea erdietsi du. Izan ere, Paddy Rekalde idazlearen aurkikuntzarik behinena Paddy Rekalde pertsonaia dela begitantzen zait: Irlandaz, punk-rockaz, sexuaz eta munduko zapalduen borroka mintzatzen zaigun idazle alkoholzalea, tabernak tertulia literarioak baino gogokoago dituen,

«Liburu honekin ahots berezi eta espezializatua eraikitzea lortu du»

Istoria askoren protagonista Paddy Rekalde pertsonaia dela dakusa Hermosillak

Eleberria: Rebel Mayo Colorao
Egilea: Paddy Rekalde.
Argitaletxea: Txalaparta
334 orrialde. 15 euro.

eta estilo sendo eta zuzena erretolika kanpoeder eta antzuak baino laketago zaiona; Bukowski eta Corto Malteseren arteko hibrido euskalduna, zelanbait esatearren. Eta hori ez da oso ohikoa gure literaturan. Jon Irazuk behiala sortu zuen Bernardo Atxaga idazlearen kasua datorkigu akordura, edo Edorta Jimenezek sortutako Omar Nabarro poeta. Baina Deustuko idazlearen kasuan, aldeak nabarmenak dira.

Izan ere, Paddy Rekalde idazlearen istorio askoren protagonista Paddy Rekalde pertsonaia da. Eleberri honetako lehenengo pasarteetan ere, Paddy dabilkigu Nafarroako lur idortu eta askotan ahaztuetan barrena, Anton bere lagunaren hiletetara joateko asmoz, eta ezustean egingo du topo liburu honetan kontatzen zaigun istorioaren protagonistetako batekin. Ezinbestez, Charles Bukowskiren Henry

Chinaski *alter ego* literarioaz gogoratzen gara. Bai, badakit Bukowski lehenago ere aipatu duguna, baina ez dut uste erreferentzia hori soberan dagoenik Paddy Rekaldez ari garela; arrazoiren bat izango zuen Rekaldek *Paddy Txinaski* ezizena hautatu zuenean, *Aizu!* aldizkarian argitaratu zituen lehenengo ipuinak izenpetzeko.

Rebel Mayo Coloraoren abenturak eta kalenturak ez dizkizuet hemen aletuko, horretarako askoz egokiagoa baita liburu irakurtzea, baina nabarmentzekoa da Rekaldek bere betiko obsesioei sakatzen diela osterera ere. Liburu honetan, punk-rocka dago (tantaka besterik ez bada ere; zahartzen hasiak gaituk, Paddy!), sexua ere dezentte (*Sex abaroko* poemetan baino gutxiago, jakina), alkohola barra-barra, Euskadiko Kutzaren egutegietan agertzen ez diren Nafarroako mahasti eta gari-soroekiko maitasuna (*Whiskey koloreko gauak*-eko ipuin batean ere gai berari heltzen zion), Rekalderen lanaren ezaugarri bilakatu den Irlandarekiko miresmena, eta, batez ere, zapaldu eta baztertuekiko samurtasuna eta injustiziaren kontra borrokatzen direnekiko konplizitatea ditugu nobela honen osagarri nagusiak. Eta uste dut horretan datzala Rekalderen meriturik

«Estilo zuzen eta adierazkorra lortzeko, hainbat baliabide literario erabili ditu»

handiena: euskal literaturan gutxitan jorratutako gaiak, are gutxiagotan agertu diren giro eta pertsonaiak, euskaraz zirriborratutako paperei uzkur eta mesfidati begiratzen dieten belaunaldiak konektatzeko moduko istorioak eta idazkera darabiltzala inolako lotsarik gabe. Rekalderen ahots literarioa intsumitua da, matxinatua, konformagaitza, *makarra* samarra batzuetan, eta horrek egiten du erakargarri. Prostitutak, ospe txarreko tabernetako jabe galiziarak, iheslariak, zaharrak, poliziek jazarritako heroinazaleak ditu begiko; horrelakoxeak dira liburu honetako orrietan zehar agertzen zaizkigun pertsonaiak.

Arkatx gorria dantzazteko gogoz dabilen kritikoak baduke hemen zer azpimarratu. Estilo zuzen eta adierazkorra lortzeko helburuz, hainbat baliabide literario erabiltzen ditu Rekaldek, batzuetan sobra erabili ere: berbarako, eten-puntuak, edo elkarrizketetako «ez duzu uste?», «zer deritzozu?» eta antzekoak. Zenbait esamolde ere topikoe-giak begitandu zaizkigu; aukeran, nahiago dugu Rekaldek bere lehenengo ipuinetan tarteka-marteka erakusten zuen idazkera landua. Narrazio laburretik lehenengo lan luze honetara egindako jauziaren ajeak, apika.

Dena dela, ez dut uste kritika akademizista formala Rekalderen lana epaitzeko biderik egokiena denik. Lehen esan dudan moduan, Rekalderen balio literarioa beste zerbaitetan datzala pentsatzen dut. Nobelaren pertsonaia batek argi eta garbi diosku: «Azken finean, zuk orain eta hemen kontatutako istorioak paperera pasatu, eta liburu ederra osa dezakezu. Hori litzateke idazlearen lana, oso modu sinplean esanda». Eta Rekaldek badu zer kontatu, apurka-apurka egiten ari den ibilbide literario sendo, fresko eta estimagarriak erakusten duenez.

Orixeren zenbait lan hautatu, eta liburuan eman ditu argitara Guillermo Etxeberriak



Antologia: Orixen hautatua
Guillermo Etxeberria.
Hiria, 2002.
84 orrialde. 8,75 euro.

Nicolas Ormaetxea *Orixen* (1888-1961) idazlearen obra erraldoiak euskal literaturan merezi duen tokia har dezan,

haren lanik behinenak hautatu eta bildu ditu Guillermo Etxeberria EHUKo irakasleak, liburu batean. Lau ataletan banaturik eman ditu argitara: testu epikoak, testu epiko lirikoak, hizkuntza herrikoian prosaz idatzitako lanak, eta azkenik, hizkuntza landuan prosaz idatzitako lanak jaso ditu.

Haurrek nazioaz duten ikuspegia jaso du Jokin Apalategik




Saiakera: Haurren nazioak.
Jokin Apalategi.
Utriusque Vasconiae, 2002.
154 orrialde. 16 euro.

Euskal Herriko egoera nazional gatazkatsuan haurrek nazio ideia nola bereganatzen duten jakiteko ikerketa bide-

ratu du Jokin Apalategi EHUKo Gizarte Mugimenduan katedradunak. Irakaskuntzarekin batera, familiaren, lagunartean, erakundeetan eta hedabideetan eragina hartu du kontuan Apalategik, horiek denek haurrak zertara eramaten dituzten jakiteko. Emaizta harrigarriak eta galdera berriak jaso ditu liburuan.

Imanol Urbietaren biografia idatzi du Andoni Egañak



Biografia: Imanol Urbietta
Andoni Egaña.
Ibaizabal, 2002.
77 orrialde. 12 euro.

Bere herrikide Imanol Urbietta musikari ezagunaren biografia egin du Andoni Egaña bertsolari zarauztarrak. Eus-

karazko haur kantu ezagunen egile eta hainbat diskoren argitaratzaileari buruz, maitasun handiz idatzi du Egañak. Haren bizitzako pasarte garrantzitsuenekin batera, argazki pilo bat jaso du *Imanol Urbietta. Luzea da bidea* liburuan. Halaber, diskografia, kantuen zerrenda eta hainbat bitxitasun idatzi ditu.